


ataria



**Bizikleta gaineko
bizipen eta gogoetak**

2019-06-07
1.071.zenbakia
107.6 fm ·
www.ataria.eus



Etxe barruko landareak | Loreontziak

Egin ezazu berezi ZURE ETXE EDO BULEGOKO EDOZEIN TXOKO!

Zubitxiki, 17
20150 Aduna /Gipuzkoa
www.adunagarden.com



Aduna
garden



4.500 minutu

Adi, spoilerrak. Game of Thrones telesailaren amaierarekin gustura ez, eta zortzigarren denboraldia berriz graba dezatela eskatzeko ia 2.000.000 pertsona mobilizatu dira, sareetan zabaldu den sinadura bilketa baten bidez. Twitterren irakurri nion kazetari bati, XXI.

mendearen «deskribapen txundigarria» zela milaka eta milaka lagun mobilizatzea, zer eta fikzioa aldatzeko.

Milioika lagunen arreta eta denbora konkistatu ditu GOT fenomenoak. Zortzi denboraldiak ikusi dituztenek, esaterako, euren bizitzetako 3 egun baino gehiago eskaini dizkiote, oso-osorik, telesailari; hau da, 75 ordu edo, zehatzago, 4.500 minutu. Beraz, dimentsio horiek aintzat hartuta, mota guztietako indarkeria eta muturrera eramandako botore nahiaren eskemekin amaituz, telesailari emandako amaiera duin eta eredu-garriaren aldeko bandoan kokatu naiz ni: bereziki, fikzioa eta errealitatea bereizteko arazoak dituzten horiekin guztiekin elkartasunez —epidemia kezkarria da—, tramaren eta pertsonaien bilakaera feminista, demokratikoa eta baketsua, haien eta denon onerako izan delakoan.

Hamaika irakurketa eta kritika plazaratu dira azken ka-

Telesailari emandako amaiera duin eta eredugarriaren aldeko bandoan kokatu naiz ni (...), tramaren eta pertsonaien bilakaera feminista, demokratikoa eta baketsua, haien eta denon onerako izan delakoan.



JONE AMONARRIZ
KOMUNIKAZIO
TEKNIKARIA

pituluaz. Irantzu Varela *Pikara* aldizkarian idatzitako *Nik Sansa bozkatuko dut* artikuluan —gaztelaniaz dago— ezin hobeto aztertu du protagonistetako baten bilakaera, feminismoaren ikuspegitik. Zer den fikziozko pertsonaia bati errealitateak gainezka egitea. Mota guztietako indarkeria konstantea, edertasun hegemonikoaren eta femini-

tatearen inposizioa, umiliazioa, kolpeak eta beldurra jasan dituen neska gazteak nola borrokatzen duen, bere patuaren norabidea erabat aldatzeko. Eta nola bihurtzen den emakume inteligente, justu, independente eta independentista. Bere lurraren jabe izan nahi duena, indarkeriarik erabili gabe, eta boterea herritarren zerbitzurako erabiliz.

Bestelako ikuspegi batetik aztertuta, aldiz, lagun batek hiru leziotan laburbildu ditu azken kapituluaren ondorioak. Bate-tik, erakutsi du bozkatzeak ez duela zati-

tzen; alderantziz, indarkeria ekiditeko, gizartearen kohe-sioa bermatzeko eta adostasunak agertzeko tresna bat dela. Bestetik, erregeak eta erreginak ez direla jaiotzen, au-keratu egiten direla. Eta, azkenik, zazpi lurraldeen artean badela bat ezberdina dena —Winterfell— eta, gertatzen dena gertatzen dela, beti izango dela independentea.

Amerikar Estatu Batuetako idazle baten istorioaren eta HBO bezalako munstro handi baten nahasketatik, fikzioa-ren eta errealitatearen arteko hari fin horretan oreka duin bat lortu izana bezain goraipatzekoa da, Euskal Herrian —bederen— hain gure sentitzen ditugun balio eta aldarrien paralelismoak jasotzea.

Fikzioak errealitatea eraldatzeko balioko balu, beharba-da errealitateak baino gehiago heziko gintuzke.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albartzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Imano Garcia Landa



Artubi elkartea bete zuten, atzo, hamaiketakoa egiteko. E. MAIZ

HARRI JASARIK EZ DA IZANGO BEDAION

Ostegunez ospatzen den festa da Bedaioko Harri Jaia. Ohitura zaharrei gogor eusten diete, eta belaunaldi berriek Harri Jaia antolatzen jarraitzen dute. Bertsolariek eta trikitilariek alaitu zuten atzoko eguna.

Eneritz Maiz Etxarri

Eguzkiak egin zien lehen harriera, atzo, bedaiotarrei, eta Harri Jaia eguna izaki, aurtengo uzta babesteko eskara ere egina dute. Harri Jaia usadio zaharrari bikain eutsiz ospatzen dute Bedaion.

Urteetan egin duten moduan, meza

nagusian San Isidrori aurtengo uzta zaintzeko eskatu zioten. Ia ordubeteko mezaren ostean, zain zituzten bertsolariak eta trikitilariak. Jendea mezetatik ateratzearekin batera, kanpoan zain zituztenek, festari hasiera emateko bi suziri bota zituzten airera.

Elizatik egin zen prozesiorik jendetsuena, Artubi elkarterako bidean egindakoa izan zen. Elkarteraino Aio-

ra Beloki eta Eider Zubillagaren trikiti doinuei, *Mendik* jarri zien pandero hotsa. Bidezidorra hartu zuenik ere izan zen, eta mahaian eserita itxaron zieten gainerakoei. Hamaiketako ederra egiteko zain zituzten mahaiaik prest jarri ta. Mikel Artola eta Unai Mendizabal *Mendi* bertsolariek saio txiki bat egin ostean, saldaz, haragi egosiaz eta txorizoz bete zituzten, tripak, kontu kontari. Elkarteko kideek mimoz zaindu zituzten bertaratutakoak, eta jan beharrekoak janda, trikiti doinuak eta bertsoak izan zituzten entzungai.

Elkartetik metro gutxiko bidean, bazkaria egin zuten Abaetxe jatetxean, eta goizeko bideari jarraituz, bapo bazkaldu eta gero, trikiti doinuez eta bertsoez gozatzeko aukera izan zuten.

Arratsalde pasa ederra egin ostean, egunari jarraipena eman nahi izan zionak, aukera izan zuen, Artubi elkarterako prozesioa eginez. Afaria egin zuten bedaiotarrek eta, horrenbestez, aurtengoarekin ere, uxatu dituzte eguraldi txarrak.

Uzta onik ez da faltako, beraz, Bedaioko baserri eta etxeetan.



Trikilarekin egin zuten elkarterako bidea. E. MAIZ



Meza ostean, bapo geratu ziren. E. MAIZ



Unai Mendizabal eta Mikel Artola aritu ziren bertsoan. E. MAIZ

Sexu erasoen aurkako protokoloari lotutako bilera, asteartean

Alegian protokoloa martxan jartzeko bilera irekia deitu dute; herriko eragile zein norbanakoentzako saioa izango da, 18:00etan

Erredakzioa

Alegiako Udalaren, emakume taldearen eta herriko beste hainbat eragileren ekimenez, iaz, jailetako sexu erasoen aurkako protokoloa martxan jarri zuten eta, orain, aurtengo festetarako ere, ildoak markatu nahi dituzte.

Joan den urtean hainbat saio egin zituzten festen aurretik eta, besteak beste, festetan taldeetan etxera joateko hitzordu ezberdinak zehaztu zituzten herritarren artean. *Ez, ezetz da!* kanpaina jarri zuten martxan.

Hori dela eta, eta aurtengo Karmen jaiak gerturatzen ari direla ikusita, berri ere, protokoloari eutsi nahi diote. Guztia prestatzeko bilera ireki baterako deia egin dute eragile diren sustatzaileek.

Bilera ekainaren 11n, asteartean, izango da, 18:00etan, kultur etxean. Nabarmendu dute, herriko eragile zein norbanako guztientzat irekia izango dela bilera. Denen artean sexu erasoen aurka egin eta aurre egiteko, herritar guztiak gonbidatu dituzte bilerara.

 **tolosaldeko
ataria**

 **ataria
irratia**

 **ataria
internet**

 **ataria
prentsa**

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Ekonomia zirkularreko ikastaroa Lehiberrin

Ekainaren 18tik 20ra, UEUren baitan, Tolosaldea Garatzenek eta Nafarroako Unibertsitateak elkarlanean antolatu dute

Erredakzioa

Tolosalde Garatzenek, Tolosaldean ekonomia zirkularren sustapen estrategiaren baitan, Nafarroako Unibertsitatearekin batera, Udako Euskal Unibertsitatearen formakuntza programaren barruan *Ekonomia zirkularren oinarriak eta tokiko esperientziak* ikastaroa antolatu du, ekonomia zirkularra zer den eta praktikoki nola aplikatu daitekeen erakusteko helburuarekin. Ekainaren 18an, 19an eta 20an izango da, euskaraz, Lehiberri zentroan.

Etengabeko hazkundera, eta ekonomia linealean oinarritutako gaur egungo kontsumo-modeloak sortzen dituen hondakinen kudeaketa, gizar-tearen funtsezko kezketakoak bilakatu dira. Horrela, berandu baino lehen,

EGITARAUA

EKAINAK 18, ASTEARTEA

09:30 – 11:30. Ekonomia zirkularraren oinarriak. Inazio Irigoien Iriarteren (NUP, UEU) eskutik.

11:30 – 13:30. Ekonomia zirkularra Tolosaldean?, Joseba Sanchez Arizmendiarieta ingurumen aholkulariaren eskutik.

EKAINAK 19, ASTEAZKENA

09:00 – 14:00. Bisita: Nafarroako Traperos de Emaus eta Jauregia enpresara.

EKAINAK 20, OSTE GUNA

09:00 – 14:00. Bisita: Tolosaldeko bi enpresetara.

ekonomia eredu aldatu beharra dago, arazo horiek gainditzeko lagunduko duen ekonomia zirkularra «berrituz». Ekonomia zirkularrean erabil-tako materialak bota ordez berresku-ratu egiten dira, berriz ere ekonomian «sartuz», natur baliabideetara jo gabe. Horrek zer suposatzen duen azaldu nahi du ikastaro honek.



Bukalai dantza taldeak izena emateko epea zabaldu du

Zizurkil. Zizurkilgo dantza taldeak ikastaroak antolatu ditu 2019-2020 ikasturterako, 2015. urtea edo lehenago jaiotakoentzat. Izena ematen duten umeen kopuruaren arabera, prezioak eta ikastaroen iraupena antolatu eta zehaztuko dute. Zizurkilgo Udaltza Joxe Arregi plazako udal bulegoetan eman ahal izango da izena, dotozen aste hauetan. Aurrematrikularen prezioa 25 eurokoa izango da.

Haur eta gazteen transexualitateaz hitzaldiak

Aduna - Larraul. *Haur eta gazteen transexualitatea: ez da nire gorputza, zure begirada da* izenburua eramango dute eta Aduna eta Larraul-en eskainiko dira. Beia Sever sexologoaren eta Naizen elkarteko bi familiaren eskutik joango dira eta Adunan, ekainaren 13an, kultur aretoan, eta Larraul-en, ekainaren 19an balio anitzeko aretoan, izango dira. Bi herrietan, hitzaldiak, 19:00etan hasiko dira.

Tolosako Babarrunaren ereitea egingo dute gaur

Tolosa. *Erein gurea dena* lelopean antolatu dute ekitaldia. 10:00etan, kultur etxeko areto nagusian, Tolosako Babarrunaren Elkarteko ki-deen hitzaldia egingo dute, eta ko-fradiak prestatutako bideoa proiektatuko dute. Ondoren taile-rrak eta Tolosako Babarrunaren dastatzea egingo dituzte. 11:30ean ereitea egingo dute Zerkausian.

Araba Euskarazera autobusez Galtzaundirekin

Tolosaldea. Ekainaren 16an Gasteizen egingo dute Arabako ikastolen festa. Bertara joateko autobusak antolatzen ari da Galtzaundi, eta izena eman daiteke, ekainaren 13ra bitarte. Autobusean joateak 12 euroko prezioa du (Galtzaundikide edota atarikide direnentzat 10 euro). Izena emateko Alegiako kultur etxera, Anoetako, Irurako eta Villabonako ikastoletara, Ibarako Galtzaundi tabernara eta Zizurkilgo udal bulegoetara jo beharko da. Galtzaundiren egoitzan ere izango da aukera.

Aiztondoko erretiratuen irteera Arantzazura

Aiztondo. Ekainaren 19an, asteazkena, Pello Zabalaaren eskutik egingo dute bisita santutegira; ondoren, Hospederian bazkaldu eta Oñatiko Txokolateixian egingo dute arratsalde pasa. Izena emateko epea ekainaren 14an amaitzen da, eta telefono zenbaki hauetan egin beharko da: Alkizan 688 60 44 66, Larraulen 634 28 93 27, Asteasun 943 69 19 07, Zizurkilen 943 69 10 12 eta Adunan 943 69 25 71. Prezioa 25 eurokoa izango da.

Argazki lehiaketa antolatu du Plazida Otañok

Aiztondo. Perspektibak argazkia ilusio optiko bihurtzeko proposamena egin du liburutegiak, 15 eta 25 urte bitarteko Aiztondoko gazteen artean. Oinarriak liburutegian egongo dira eskuragai, eta ekainaren 15era bitarte aurkeztu ahal izango dira lanak. Bi sari banatuko dituzte aurkeztutako argazkien artean: 150 euro argazki onenari, eta 75 euro bigarrenari.

Zumardiak ikastaroak eskainiko ditu uda parterako

Besteak beste, Josu Iztuetaekin piragua zeharkaldiak egiteko aukera izango da, ekainaren 15 eta 16an

Erredakzioa

Aurreko asteburuan Oria eta Uru-
mea ibaietan ibili ondoren, ekai-
naren 15ean Bidasoan eta ekainaren
16an Pasaia eta Oiartzun inguruan pira-
gua zeharkaldia egiteko proposamena
egin du Zumardiak. Zortzi laguneko
taldea osatu behar da, eta asteburu oso-
rako irteera egitea pentsatu dute. Elkar-
tearen gunean, www.zumardia.eus-en,
egin daitezke izen-emateak. Horrekin
batera, ekainean eta uztailean, astebe-
teko ikastaro trinkoak eskainiko dituz-
te, astelehenetik ostiralera, egunero
ordu eta erdiz, piraguan eta paddle
surf-ean ibiltzen ikasteko.

Mendiarekin loturiko ikastaroak ere
izango dira. Ekainaren 29an eta 30ean,
Añamendietan mendian autonomiaz
gaua egiteko ikastaroa eskainiko dute.
Mendiko bizikletaz ibiltzen ikasteko
ikastaroak egingo dituzte, ekainean eta
uztailean, astebetetz, eta 11 eta 15 urte bi-
tarte koentzat Hernio eta inguruko
mendi eta herrietan barrena bost egu-
neko zeharkaldi bat egiteko aukera es-
kainiko dute. Uztailaren 15etik 19rako
txandan oraindik badago tokia.



Tic-Tac antzerki tailerreko kideak emanaldi batean. ATARIA

Tic-Tac antzerki tailerrak landutakoa erakutsiko du

Leidor aretoan, gaur, 20:30ean,
Alfredo Sanzolen Delicadas
antzezlanaren 'Txuri'
egokitzapena eskainiko dute

Erredakzioa

Tolosako kultur etxeko Tic-Tac an-
tzerki tailerrak ikasturtea biribildu-
ko du gaur. 26 lagunek osatu dute taile-
rra, 2018-19 ikasturtean. Askotarikoa da
taldea, gazte zein heldu, eta horrexek
egiten du, taldekideen hitzetan, bidaia
hau «errealago eta aberatsago».

Elena Aranbarri antzerki tailerraren
zuzendariak azaldu duenez, izaeradun
emakumeen mapa eratzen duen mosai-
koz dago osatua, *Txuri* antzezlanak: «In-
dar handiarekin bizitzari aurre egin zio-

ten emakumeak, garai ezberdinetara bi-
kaintasunez egokituz. Umorez beteriko
emakumeen istorioa da. Bertute handi
hori, biziraupenaren parte dena, bizi-
tzarena, min guztien sendatzea da».

Txuri izenburuarekin bat datorren
eszenaratzea prestatu dute: «Jendeak
beste toki batera bidaiatuko lukeenaren
sentsazioa helarazi nahi dugu; planeta
ezberdin bat, non hainbat eta hainbat
gertakari ezberdin jazotzen diren».
Aranbarri azaldu duenez, «agertokian
emakume abaniko zabala ikusiko da, bi-
zipen ezberdinak, bitxikeriak, irri zein
minak. Antzerki taldearen ispilu da,
gure aniztasunaren isla. Talde lana eta
ilusio ikaragarria jarri dugu». Antzezla-
na euskaraz zein gazteleraz eskainiko
dute.

07

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Asteazkenean batzar informatiboa egin zuten Ibarren, 11/13 makroepaiketa dela eta. ATARIA

Makroepaiketa salatze- egitasmoak martxan

Ekainaren 11n egingo dute guztia antolatzeko hurrengo batzarra, 19:00etan, Ibarako Txontxoko udal lokaletan

Irati Saizar Artola

Irailaren 16an hastekoa den makroepaiketaren harira, herri batzarra egin zuten, asteazkenean, Jon Mintegiaga *Minderen* senide eta lagunek, Ibarako kultur etxean. *Minderen* egoeraren berri emateaz gain, Jesus Mari Aldunberri *Kudu* elduaindarraren egoera ere azaldu zuten, eta 11/13 makroepaiketa salatze-egitasmoak martxan jartzeari ekin zioten.

Lehen batzar horretara 70 herritar inguru bildu ziren, eta haiek egindako ekinaldien ideia zaparradaren ostean, lan taldeak antolatu zituzten egitasmoak martxan jartzeko. Oraingoaz, lau lan talde hasiko dira lanean: iraila hasieran egingo den Elkartasun Eguna antolatzeko taldea, elkartasun ekonomikoa jorratuko duen taldea, komunikazio taldea eta harremanak egin eta herritar eremu zabala sentsibilizatuko duen taldea.

Egitasmo nagusienak Ibarren egi-

tea aurreikusi zuten, baina «elkartasun dinamika eskualdeko herrietara ere zabaltzea pentsatu dugu, batez ere, uda parteko jai eta festa giroak baliatuta», azaldu zuten *Minderen* lagun eta senideek.

Auzipetuek sortu duten webgunearen berri ere eman zuten. Bertan, informazio orokorra agertzen da, baita herrietan dinamikak abiatzeko beharrezkoak diren bitarteko guztiak ere. Honakoa da helbidea: 11/13makroepaiketa.eus.

Bestalde, ekarpenak jasotzeko bidea ere ireki dute. Izan ere, aurreikuspenen arabera, auzipetu bakoitzak 7.000 eurotik gorako gastuak izango ditu epaiketan zehar. Laguntzeko alea jarri nahi duenak webgunetik bertatik egin dezake, edo honako kontu korrontean sar dezake dirua: Laboral Kutxa ES82 3035 0057 9205 7005 9033.

Guztia antolatzen jarraitzeko hurrengo batzarra ekainaren 11n izango da, 19:00etan eta, oraingoan, Ibarako Txontxoko udal lokaletan egingo dute. «Behin ideiak txukunduta, horien irakurketa orokor bat egin eta jendea lan taldeetan banatzeko asmoa dago».

Lorez apainduta dagoena sarituko dute Berastegin

Leiho, balkoi, terraza eta lorategi lehiaketetan izena emateko epea zabaldu du Berastegiko Udalak

Erredakzioa

Berastegiko Udaleko kultura batzordeak hamaikagarrenez antolatu du leiho, balkoi eta terraza lehiaketa, eta bederatzigarren aldia izango du lorategi lehiaketak.

Dagoeneko ireki dute parte hartze-ko epea, eta izena bi moduren bidez eman daiteke: udalaren 943 68 30 00 zenbakira deituta edo udaletzeko harrera bulegora bertara joanda. Apuntatzeko azken eguna ekainaren 28a izango da. Honako datu hauek eman behar dira: parte hartzailearen izen abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta zein lehiaketetara aurkeztuko den. Bietan batera ere eman daiteke izena.

Leiho, balkoi, terraza eta lorategiak baloratzeko, uztailako larunbat goiz bat hartuko dute kultura batzordeko kideek eta, lorezaintza teknikari baten laguntzaz, etxex etxe ibiliko dira puntuazioa jartzen. Bisita horietan, argazkiak aterako dituzte eta udalaren webgunean jarriko dituzte herritar guztiek ikus ditzaten.

Puntuazioa jartzerako orduan, kolo-rea, landareen aniztasuna, konbinaketa, estetika eta txukuntasuna hartuko dituzte kontuan.

Guztira sei sari banatuko dituzte, modalitate bakoitzeko hiru. Sari banaketa Salontzotako herri-afarian egingo dute, eta sariak ziklikoki banatuko dituzte, ahalik eta parte hartzaile gehien saritu ahal izateko, hau da, iazko irabazleek aurten ez dute saririk jasotzerik izango, baina datorren urtetik aurrera sarituak izan daitezke.

Lehiaketa aurrera eraman ahal izateko, gutxienez, bost parte hartzailek eman beharko dute izena. Beraz, kultura batzordekoek azaldu dutenez, «bost lagun baino gutxiago apuntatzen badira, lehiaketa bertan behera geratuko da».

Kanturako ahots berrien bila

Ibarrako koruko kideek kurtsu amaierako kontzertua eskainiko dute, gaur, 19:00etan, Ibarrako kultur etxean

I. Saizar Artola

Ikasturtean zehar ikasitakoa jendaurrean erakusteko unea heldu zaie Ibarrako koruko kideei. Kultur etxeko aretoko oholtzara igoko dira, gaur, 19:00etan, kontzertua eskaintzeko.

Doinu klasikoak abestuko dituztela azaldu du Santos Agirrezabala koroko kideak. Besteak beste, euskal abesti ezagunak entzuteko aukera izango da. Tarteetan, *Agurra*, *Xalbadorren heriotzean*, *Gogoaren baitan* eta *Txoria txori* abestiak kantatuko dituzte. Horiez gain, japoniarrez ere abestuko dute kanta bat. «Ez da oso abesti luzea. Maitasun kanta bat da, nahiko erakargarria», esan du. Ahoskerari dagokionez, pixkana egin dute lana, ahalik eta antzekoenen egiteko: «Beraiek bezala ez dugu ahoskatuko, baina saiatu behintzat egin gara».

Guztira, hamaika izango dira abestuko dituzten kantuak, eta ordubete inguruko saioa izatea aurreikusi dute.

Ahots berrien bila

Egun 22 lagun inguruk osatzen dute taldea, 13 emakume eta 9 gizonak. Agirrezabalak esan du gizonezkoen ahots gehiago «gustura» hartuko dituztela, «ahots baxuak egiteko». «Hiru gizonezko gehiago etorriko balira tal-



dera, askoz ere hobea litzateke talde osoarentzat», dio. Taldean sartzeko ez dela profesionala izan behar azaldu du Agirrezabalak, «gustukoa izatea eta belarri pixka bat izatea eskatzen dugu; ez dugu castingik egiten». Ondo pasa-

tzearena ziurtatuta dute, izan ere, abesteaz gain, «talde giro ona» dutela esan du, eta entseguen ondoren «tragoren bat hartzera» ere joaten omen dira.

Normalean, astean egun batez egiten dituzte entseguak, ostegunetan, 19:30etik 21:00etara. Azken asteetan, ordea, kontzertua dela medio, astean bitan elkartu dira.

Gaurko kontzertua, ikasturteko azkena izango da. Urtero prestatzen dute «herritarrentzat» emanaldi hori. Gabonetan eskaini zuten azkena, eguberrietako kantak abestuz. «Gehienbat Ibarran kantatzen dugu eta, horrez gain, kantu jirak ere egiten ditugu».

Kontzertu ostean, atsedenerako tartea hartuko dute, eta udazkena gerturatu ahala, urri aldera, berriro ekingo diote elkartu, ahotsak berotu eta abes-teari.



Nafarroa etorb. 13 behea • TOLOSA
670 41 79 22 • Tel./Faxa: 943 65 0313



Tolosa finalerdietan, gomazko paletan

Erredakzioa

Herriarteko Pilota Txapelketan, gomazko paletan, finalerdietan murgilduko dira. Eskualdetik Tolosak lortu du horraino iristea, aurreko kanporaketan Irun gainditu ondoren. Anoetak Azkoitiaren aurka zuen kanporaketa, eta ezin izan du aurrera egin.

Tolosa finalerako txartela lortzen saiatuko da, Usurbilen aurka. Joaneko partidak kanpoan jokatu zituen atzo gauean.

Eskuzko jokamoldean, finalerdietara sailkatzea izango dute jokoan aste-buru honetan. Altzok Azkoitiaren aurka jokatu du, gaur, 22:00etan, Azkoitiko Gurea frontoian. Altzon jokaturako norgehiagokan, kadeteetan 16-22 galdu zuten, jubeniletan irabazi, 22-10, eta nagusietan galdu 13-22. Be-



Altzoko bi pilotari, Azkoitiaren aurkako partidaren. ATARIA

raz, 1-2ko aurkako markagailuarekin joango dira altzotarrak Azkoitira.

Tolosa da finalerdietarako sailkatzten saiatuko den eskualdeko beste taldea, nahiz eta ez duen erraza. Bihar izango ditu itzulerako partidak, etxe-

an, Beotibar frontoian, 19:30ean. Ataun du aurkari, eta joaneko partidetan 2-1 galdu zuten tolosarrek: kadeteetan irabazi egin zuten 19-22, jubeniletan galdu 22-13 eta nagusietan ere galdu 22-8.

Herri Kiroletatik...

Endañeta, Barriola eta urrezko herri kirolariak

Joxe Manuel Agirre *Endañeta* handiari omenaldia egin zioten Zumaian, aurreko larunbatean. Lehendabizi liburu bat aurkeztu zuten, Joseba Urretabizkaia tolosarraren bidez egindako.



JOXE ANJEL SARASOLA

apustua, eta horixe izan zen abantailarik eman ez zuen apustu baka-

rra. Irabazi eta galdu egin izan ditu apustuak, baina abantaila emanda beti. Bakarra jokatu zuen, 125 kiloko kubikoarekin, kasualitatez, nire osaba Joxe Mari Sarasolaren aurka. Azkenean apustua 1975. urtean jokatu zuen, nahiz eta, gero, urte batzuetan, erakustaldiak egiten aritu. Segalari bezala ere lan batzuk egin zituen. Izen handia hartu zuen, *Espainiako gizon indartsuena* titulua jaso ondoren, Franco garaian egiten ziren proba batzuk irabazita. Endañeta izan zen 250 kiloko harria jaso zuen lehenengoa.

Bestalde, Berriatuan izan ziren kintopeko idi probak. Asteasuko Joxe Barriolak beste behin irabazi zuen. Dagoeneko baditu lau zapabost txapelketa kintopekoak eta, esan behar da, Berriatukoa ez dela edozein plaza. Izen oneko idi pareak joaten dira, urtean zehar lana egindakoak. Kintopeko mailak xarma berezia du, idi berriak izaten direlako, aurreneko aldiz ikusten direnak, eta horiei jarraipena egiten zaie. Aurten Barriolaren idiak nagusitasun osoa erakusten ari dira.

Asteburu honetan Azpeitian izango da hitzordu nagusia. Gaur izango da,

22:00etan hasita, Izarraitz pilotalekuan. Batetik, Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketaren finalean, Iker Vicente, Mikel Larrañaga eta Julen Alberdi *Txikia IV.a* ariko dira. Faboritoa Vicente da, baina, zutik lanak egin behar direnez, ikusi egin beharko da.

Bestalde, Emakumeen Trontza Txapelketa izango da jokoan. Karmele Gisasola *Zelai III.a* eta Uxue Ansoregi, Garbiñe Lopez de Uralde eta Ruth Linaza, eta Itxaso Onsalo eta Leire Astiazaran ariko dira lehian. Azken hau zizurkildarra da.

Bestea Urrezko Binakako Harri-jasotze Txapelketa izango da. Imanol Albizu *Goikoetxe* eta Xabier Aranburu *Guzta*, Jon Gisasola *Zelai V.a* eta Jonkin Eizmendi, eta Iñigo Eizagirre *Eiza* eta Aimar Galarraga ariko dira.

Horrez gain, aizkorako beste bi txapelketa jokatuko dira. 23 urte azpiko banakako txapelketan, Julen Larrea, Oier Kañameres eta Joxean Etxeberria ariko dira nor baino nor. 19 urte azpiko mailan, berriz, Hodei Ezpeleta, Xuban Kañameres eta Aritz Azpiazu Arria VI.a izango dira txapelaren lehian ariko direnak.

V.ataria pilota txapelketa

ESKUZ

BENJAMINAKA BERASTEGI, FINAL-LAURDENAK

Ostirala, 18:30

Sanchez-Aljostes
Vidaurreta-Lacarra
Garikoetxea-Otaegi
Aizpurua-Odriozabala
Gonzalez-Zufiria
Iparragirre-Tejeria
Otaegi-Mayoz
Larrarte-Garmendia

BENJAMINAK B VILLABONA, FINAL-LAURDENAK

Ostirala, 17:30

Aperribai-Esnaola
Ruiz-Eizagirre
Arruti-Val-Roteta
Mintegi-Acosta
Saralegi-Saralegi
Lanzeta-Iraola
Arteaga-Nazabal
Urruzola-Gorriti

PALAZ

INFANTILAK BIDANIA, 3. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:00

Agirre-Ugartemendia
Arretxe-Tejeria
Maiz-Urkola-Jauregi
Aramendi-Iraola
Goitia-Uzkudun
Balda-Astrain
Otaegi-Aranburu
Faz-Zubizarreta-Etxeberria

Lehen finalerdiak jokoan, San Joan Txapelketan

Erredakzioa Tolosa

Lau eta erdiko San Joan Txapelketaren bosgarren jardunaldia jokatuko dute, bihar, Tolosako Beotibar frontoian, 10:30etik hasita. Lau partida jokatuko dituzte, eta horietatik hiru finalerdiak dira.

Lehenengo partida A taldeko jubenilen finalerdia izango da: Larrazabal (Amurrio) eta Gutierrez (San Cosme), nor baino nor. Bigarren partidaren etorkizuneko B taldeko finalerdia, Ruiz de Larramendiren (Lapke) eta Julen Alberdiren (Gazte Leku) artean. Hirugarrenean, etorkizuneko A taldeko final-laurdena Zabalairen (Zazpi Iturri) eta Aristiren (Getaria) artean. Laugarren partidaren elite mailako A taldeko finalerdia, Espinalek (Huarte) eta Larenak (Najerino) jokatuko dute.

Aurreko jardunaldian hiru partida jokatuta zituzten. Jubeniletan Larrazabalek (Amurrio) egin zuen aurrera, 22-18 irabaziz Larrañagari (Lapke). Bi pilotarietarik bikain jokatu zuten, tanto ederrak eginez. Jubeniletan ere, Salaberriak (Hernani) 6-22 galdu zuen Jorge Fernandezek (San Juan) aurka.



Aurreko jaialdiko une bat. AGERREMEDIA.COM

Errioxarra gehiago izan zen, eta pilota oso azkar eta ondo mugitu zuen. Elite mailan, Espinalek (Huarte) 22-15 irabazi zion Matari (Oberena). Hasieran aurretik jarri zen Mata, baina, bedertzi tantotara berdindu ondoren, Espinalek freskotasuna erakutsi zuen tantoak amaitzerakoan.

Euskadiko Hondartzako Boleibol Txapelketa, Tolosan

Erredakzioa Tolosa

Gizonezkoen 17 urte azpiko Euskadiko Hondartzako Boleibol Txapelketa izango da jokoan, bihar, Tolosan. 10:00etan hasiko da lehia Ferialekuan, eta bertan sei bikotek parte hartuko dute. Horietatik bi Toloboleiko gaztetxoak dira, guztiak tolosarrak: Oyarzabal eta Artola, batetik, eta Mixelena eta Uranga, bestetik. Hiru taldeko bi multzo egingo dituzte, eta multzo bakoitzeko lehen sailkatuek jokatuko dute finala. 13:15ak aldera izango da txapeldunak erabakiko diren partida.

Tolobolei klubetik azaldu dutenez, «nahiz eta duela urte batzuk baino ospe handiagoa duen boleibolak, kirol minoritarioa izaten jarraitzen du. Bide horretan, Euskadiko Txapelketa Tolosara ekartzeak, 17 urtetik beherako gazteen eskutik, maila oneko boleibolaz gozatzeko aukera eskaintzen digu». Hori horrela, ikusle guztientzat ateak zabalduta izango dituztela azaldu dute Toloboleitik.



AINTZANE ARTOLA

Ilarrak seitanarekin

Udaberriarekin batera, garaiko produktu freskoak iristen ari dira gure azoketara, eta astero-astero ikus daitezke gutizia txikiak: orburuak, babak edo ilarrak. Gaur, ilarrekin prestatuko dugu gure platera.

Ilarrekin eta seitanarekin Seitara landare-proteina bat da, eta gariaren glutenarekin egiten da. Ore bat prestatzen da eta, ore hori egosi egiten da, soia saltsatan, kombu algekin eta jengibrearekin. Dena den, konplikatu samarra da prozesua eta, beraz, guk erosi egingo dugu seitan; belar dendetan saltzen dute, eta supermerkatuetan ere gero eta gehiago.

Behin osagai guztiak mahai gainean ditugula, ilarrak zuritzeari ekingo diogu lehenengo; denbora pixkat bat emango digu.

Ilarrak uretatik pasatutakoan, gure barazkiak prestatzeko hasiko gara. Horretarako, porruak hartu eta txiki-txiki moztuko ditugu, laukitxotan;

baita tipula ere. Olio pixka batekin, tipula eta porrua zartagian jarriko ditugu, erregosteko. Potxatu egin nahi ditugunez, gatz pixkat bat ere botako diegu hasieran, izan ere, gatza botatzen badiegu, beren ura askatuko dute, eta erregosi egingo dira. Horrela, tipulak bere kolorea hartu duela ikusten dugunean, ilarrak botako ditugu bertara.



AINTZANE ARTOLA
SUKALDARIA

Gero, seitana prestatuko dugu. Kontuan hartu behar da, seitana soia saltsatan egosita datorrenez, nahiko gazia dela. Horregatik, ilarrek hain lagungarri ohikoa duten urdaizpikoa ordezkatzeko balioko digu seitanak; gatz puntu hori emango dio. Hasieran, beraz, komenigarria da gatzarekin gehiegi ez pasatzea.

Seitana prestatzeko, tiratan moztuko dugu, eta zartagira botako dugu. Pixka bat gorritzen denean, ura botako dugu, baina ez dena estaltzeraino; erdiraino-edo, ilarrak pixka bat egosi daitezen, eta gogorak gera ez daitezen. Su baxuan, goxo-goxo

edukiko ditugu ilarrak egiten, seitanarekin. Ura lurruntzen denean, salda goxo bat geratuko zaigu, tipulak, seitanak eta ilarrek ematen dioten zaporea-rekin. Modu honetan, gure errezeta-ren lehen zatia prest edukiko dugu.

Azken ukitua eman nahi izanez gero

Horraio, esan dezakegu errezeta hau beganoa dela. Ordea, nahi duenak arrautza ere gehi diezaieke ilarrei eta, kasu honetan, arrautz-loreak egiten ikasiko dugu; arrautzak *poché* erara.

Arrautza oso-oso gutxi egitea da helburua, gero ilarren gainean urtu dadin. Horretarako, edalontzi edo katilu bat hartu, eta film papera edo paper gardena jarriko dugu ontziaren gainean. Gero, eskuarekin menditxo bat egingo diogu, edalontziaren barrualdera; arrautza bertan sartuko dugu.

Olio hartu, eta film paper hori bus-ti egingo dugu, eta horrek ahalbidetuko digu, arrautza bertan itsatsita ez geratzea. Arrautza bertan botako dugu eta, nahi izanez gero, pipermin hautsa edo gatza bota geniezaioke gure arrautzari. Gero, paketetxo hori itxi egingo dugu, izkinak hartuz eta korapilo bat eginez. Arrautzaz egindako plastikozko paketetxo bat geratuko zaigu, eta horrela egosiko dugu, lau minutuz. Ura sutan jarri eta, irakiten hasten denean, sua jaitsi, bor-bor hori mantendu, eta arrautza lau minutuz edukiko dugu bertan.

Ateratakoan, ur hotzetatik pasatuko dugu segituan, gehiago egosi ez dadin; gainera, errazagoa izango da plastikoa kentzea. Gorringo oso-oso gutxi eginda egongo denez, arrautza urtu egingo da ilarren gainean. Hala ere, gustuen arabera, arrautza ohiko modua egosita ere gehi daiteke.

OSAGIAK (2PERTSONARENTZAKO)

- Tipula erdi bat
- Bi porru
- 200 gramo ilar zurituta
- 100 gramo seitan
- Olio
- Gatz
- Piper min beltza
- Arrautza bat pertsonako (aukeran)

Kontsumo eta ekoizpen ereduak aldatzeko ordua: ekonomia zirkularra

Orain arteko bizitza, ekoizpen eta kontsumo ereduak agortzen ari dira; eredu horiek sortzen dituzten hondakinen kudeaketa, gizartearen funtsezko kezketako bat bilakatu da.

Elikagaien inguruan datu bat: zakarretara botatzen ditugun elikagaiak herrialde bat izango balira, Txinaren eta AEBren ondoren, CO₂ isurketen errudun den hirugarren herrialdea izango lirateke. Europako Elkarteak, berriz, ekoizten diren elikagaien %20 alferrik galtzen uzten ditugula dio.

Eguneroko bizitzarako produktuak ekoizteko erabiltzen ditugun materialen inguruan, beste datu bat: Europan, 2012. urtean, material eta produktuen balio material eta energetikoaren %5 soilik berreskuratzen zen, edo, beste modu batera esanda, %95 alferrik galdu ziren. Eta guztia martxan jartzeko beharrezko energia, gainera, kanpotik dakargu, eta menpekotasun handia suposatzen du. Hori guztia jakin badakigu aspalditik. Baina, zerbait egiten ari al gara?

Gauzak horrela daudela, berandu baino lehen ekonomia ereduak aldatu beharra dago, arazo horiek gainditzen lagunduko duen ekonomia zirkularrera eraldatuz. Ekonomia zirkularraren erabilitako materialak, bota orde, berreskuratzen egiten dira, berriz ere ekonomian sartuz, natur baliabideetara jo gabe. Baliabideekiko menpekotasuna eta hondakinen sorrera murrizteko eta, era berean, ingurumenaren ka-

litatea mantentzeko aukera ematen duen garapen eta hazkunde eredu bat ezartzeko pausoak eman behar ditugu.

Adibideak egon badaude, dagoeneko, gure inguruan. Baina ezin dira esperientzia isolatuak izan. Gure ekonomia osoak pentsakera zirkularraren oinarritu behar du: produktu edo zerbitzu bat diseinatzen den unetik, ahalik eta hondakin gutxien sortzeko planteamendua eduki behar du, ondoren, ekoitzi, kontsumitu eta desegiteko garaian, arazoak gutxitzeko edo ekiditeko.

Gure eguneroko bizitzan hartzen ditugun kontsumo erabakiak garrantzitsuak dira, argi dago. Baina, ekonomia zirkularraren garapenerako, administrazio publikoaren apustu estrategikoa funtsezkoa da. Tolosaldea Garatzen ekonomia zirkularraren sustapen estrategia lantzen ari da, eta, beste proiektu batzuen artean, Nafarroako Unibertsitatearekin batera antolatu dugu, Udako Euskal Unibertsitatearen baitan, *Ekonomia zirkularraren oinarriak eta tokiko esperientziak* ikastaroa: ekonomia zirkularra zer den eta praktikoki nola aplikatu daitekeen erakustea da helburua. Ekainaren 18tik 20ra bitarte izango da, Lehiberri Zentroan, eta euskaraz egingo da. Dagoeneko gure ordua da.



«Oraindik sentitzen dut txirrindularia naizela»

ANE IRIARTE

TXIRRINDULARI OHIA

Txirrindularitza utzi berri du Ane Iriartek. Profesionaletan egin zuen urtea ez zen izan espero bezalakoa, eta egun gustura dabil, erizain moduan lanean, eta alor horretako ikasketetan sakontzen.

Imanol García Landa

Bizkaia Durango talde profesionalean 2018 urtean aritu ondoren, lehiaketako txirrindularitza uztea erabaki du Ane Iriartek (Villabona, 1995). Bizikleta gainean lehiatzen aritu den hamar urte inguruetan lortutako eskarmentuak, egungo bizimodurako balio diola dio.

Zer dela eta utzi duzu txirrindularitza?

Faktore ezberdin askok izan zuten zeresana, nik aukera hori egiteko garaian. Erizaintzako gradua aterata nuen, eta gogorra egin zitzaidan urtebete txirrindularitzarari bakarrik eskaintzea. Batez ere psikologikoki. Aurreko lau urteetan bizikleta eta ikasketak bateratu nituen eta, bat-batean, sentitu nuen bizikleta bakarrik nuela, eta nire inguruko ikaskide guztiak bizitza aurrera eramaten ari zirela, ikasketak horiek praktikan jarritz. Zentzu horretan, ni pixka bat geldituta sentitzen nintzen. Egia da fisikoki bizikleta gainean oso ondo sentitzen nintzela, baina faktoreetako bat hori izan zen.

Beste faktore bat izan zen, lesio bat izan nuela oinetan, eta oso gogorra egin zitzaidan lesio horrekin entrenatzen segitzea, eta lasterketetan parte hartzen segitzea. Bizikletan gauzak ondo doazenean oso gustura zaude, eta dena erraz egiten duzu, eta sakrifizio guztiek merezi dute, baina, zerbaitek huts egiten duenean, hasten zara zalantzan jartzten, ea bide onetik zoazen.

Eta, gerora, pentsatu duzu ea erabaki zuzena izan zen?

Gaur egun lanean nago, eta ebakuntza-gelako aditu titulua bukatzen ari naiz. Beraz, ez dut izan aukerarik ondo egin nuen ala ez pentsatzeko. Egia esan, dena oso ondo joan zait bizikleta zintzilikatu nuenetik. Lana atera zait, lanarekin batera aditu praktikak bateratu ditut eta, egia esan, beste modu batera gozatzen ari naiz. Beste egoera batean egongo banintz, bueltak emango nizkioke buruari, baina, hain ondo doakit dena, ez dudala horretan gehiegi pentsatu.

Txirrindularitzan ikasitakoak eta landutakoak zerbaitetan laguntzen dizu gaur egun?



Nik txirrindularitza utzi dut, baina barrutik txirrindularia sentitzen naiz. Ez da bakarrik bizikleta gainean pedalei ematea, beste eskarmen-tu batzuk ere ematen dizkizu. Diziplina ematen dizu, esaterako. Bestalde, denboraldian zehar izan ohi da lesioren bat, erorketaren bat, gaixotasunen bat... Eta hortik ateratzen jakiteak ematen dizun asebetetzea orain ere aplikatzen jarraitzen dut.

Bai, txirrindularitza utzi dut, baina oraindik sentitzen dut txirrindularia naizela, eta hortik ikasi dudana guztia egun aplikatzen dudala beste modu batera.

Orain gutxi Emakumeen Bira izan da, eta bigarren etapa eskualdean izan zen, zehazki, Aiztondon. Inbidia puntu bat eman zizun ez egoteak?

Pena sentitu nuen. Orain bi urte etxe aldamenetik pasatu izan balitz, zenbat gozatuko nukeen. Dena den, ez nuen aukera gehiegirik izan, lanean harrapatu ninduen. Baina

<<Nik orain, hilabetean, erizain izanik lortzen dudana, urte osoan txirrindulari bezala irabaziko nuke>>

beti sentitzen duzu zerbait, inkontzienteki hutsunea sentitzen duzu, horrelako lasterketetan, etxe ondoko lasterketetan. Azkar zoazeneko sentsazio horren hutsunea. Orain, bizikleta hartzen dudanean, ez noa hain azkar.

Azken urtea talde profesional batean egin zenuen. Lorpena ere izango zen horraino iristea, ezta?

Niretzako lorpena izan zen horrelako talde batean parte hartzea, eta lehiatu nituen lasterketetan parte hartzea. Belgika aldean proba garrantzitsuetan parte hartu nuen, negu aldean. Emakumeen Biran parte hartzeko aukera izan nuen, gero lesioagatik utzi behar izan banuen ere. Bestalde, horretan bakarrik ehuneko ehunean zentratzea zaila egin zitzaidan. Niri kostatu zitzaidan, batez ere urte zaila izan nuelako lesioengatik, eta oztopo batzuk topatu nituelako tartean.

Profesionala izateak esan nahi du, horretan erabat aritzea eta soldata bat izatea. Zer-nolako soldatak izaten dira zurea bezalako taldeetan? Agian taldekide guztiek soldata berdina ere ez zenituzten izango.

Profesional hitza erabiltzen da, baina sasi-profesional esango nuke. Gu saiatzen gara dena ematen, entrenamenduetan edo lasterketetara joaten. Eguneko ordu asko ematen ditugu horretan, ez bakarrik entrenatzen, baita ondoren datorren atsedena ehuneko ehunean betetzen ere. Baita zaintzen ere, gaixotasunak ez harrapatzeko. Elikadura ere zaindu egin behar da. Azkenean, eguneko 24 orduak bizikletan pentsatzen ari gara. Eta soldata aldetik ez du zerikusirik horrekin, ez dugu baldintzarik profesionalak garela esateko.

Animatuko zinateke esatera, zenbatekoa den soldata hori?

Gutxi-gorabehera, nik orain, hilabetean, erizain izanik lortzen dudana, urte osoan txirrindulari bezala irabaziko nuke. Alde handia dago.

Alor horretan, gizonezko txirrindulariekin aldea handia izango da, ezta?

Aldea dago, ez bakarrik txirrindularitza kanpo, bertan ere bai. Txirrindularien mailen arabera, aldaketak daude. Txirrindulari batek eguneko 24 orduak horretan ematen

ditu, eta langile batek zazpi edo zortzi ordu egiten ditu egunean; erizainen kasuan, zazpi egunez eta hamar gauean eta, ondoren, etxera doaz beren bizitzekin jarraitzera. Bizikletan 24 ordu dira, bidaiak eta aurretik komentatutako guztiak. Eta nesketan oraindik gutxiago. Orduan, zaila da profesionaltasun hori izatea.

Eta zerbaitetan ikusten duzu, emakumezkoen txirrindularitza, azkenaldian baldintza ho-

riek hobetzen ari direla esateko?

Aldaketa txikiak ikusten dira, baina ez dakit benetan aldaketa horiek nahikoak diren, mutilen egoera berdinerara iristeko.

Berdintasuna iritsiko da?

Ez dakit inoiz berdintasun hori sentitzera iritsiko garen. Egia da, nire txirrindularitza bizitza osoan, ez dudala mugarik izan. Esan nahi dut, hemengo eskoletan ni berdintzatu nautela, federazioan berdintzatu nautela. Mugak

izan dira, behin profesional mailara iritsitakoan. Orduan konturatzen zara, ez gaudela egoera berean. Berdin entrenatzen dugu, eta mutilen kilometraje berdina egiten ez badugu ere, berdin sakrifikatzen gara, eta emaitzak ez dira berdinak.

Atzera salto bat eginez, nolatan aukeratu zenuen txirrindularitza?

Beti izan naiz neska aktiboa. Orain ere ez naiz geldirik egoten, egunero saiatzen naiz nire tartea bilatzen, kirola egiteko. Oso aktiboa izan nintzen, hamar-hamabi urtera iritsi nintzen arte. Ikusten nuen nire lagunak beste jarduerara batzuetan parte hartzen zutela beren aisialdian, eta niri mendira joatea, patinetean ibiltzea edo bizikletan ibiltzea gustatzen zitzaidan. Behin, etxera iritsi, eta esan nuen zerbait egin behar nuela nire bizitzarekin, eta, berehala, Oriako Txirrindulari Eskolan izena eman nuen. Une hartan nire lehengusua ere hantxe zebilen, eta horrelaxe animatu nintzen.

Entrenatzen orduak eta orduak pasatuko zenituen urte hauetan guztietan.

Bai, orduak eta orduak. Astean egun bat libratzen genuen, eta, bestela, bai errepidean eta bai pistan, orduak sartu ditugu. Garaiaren arabera ere izan da. Proba garrantzitsuak etortzen zirenean, goizez eta arratsaldean entrenatzen genuen. Batzuetan, goizean errepidera ateratzen ginen eta gero, arratsaldean, pista; edo goiz eta arratsaldean pistan. Entrenatzaileak egun horretarako jartzen zigen planaren arabera.

Errepidean talde baten izenean parte hartzen da. Pistan ere horrela izaten da, edo batzuetan federazioaren izenean parte hartzen zenuen?

Izan ditudan talde guztiak errepidekoak izan dira. Pistan federazioaren babesaren sentitu behar izan dut beti, probatan parte hartzeko. Gipuzkoako Federazioarekin zorretan sentitu naiz beti, beraiek eraman izan naute behar izan dudana probetara, behar izan ditudan puntuak lortzeko, eta, behin puntu horiek lortuta, Espainiako selekzioa izan da kanpora atera nauena. Federazioaren laguntzarik gabe ezin izango nukeen aurrera atera, ez dudalako pistako taldea izan.

Kontua da, lehen aipatu moduan, denboraldi oso batean hainbat oztopo izaten ditugula. Eta oztopo bat izan zen, azkeneko urtean, Euskadiko selekzioa. Urte guztia pasatu genuen Espainiako Txapelketa prestatzen, horretarako egin

«Hilabete gogorrak izan dira, baina lortu dut, eta nire denbora librean kirola egiten jarraitzen dut»



beharreko entrenamendu eta lasterketa guztiak prestatuz, eta, kontua da, Euskadiko hautatzaileak esan zuela, hila-bete lehenago, inongo arrazoirik eman gabe, neskak ez zituela eramango Espainiako Txapelketetara. Orduan inguruko neskek beren taldekoen babesaren izena zuten, baina ni

nire kontura joatekoa nintzen eta, beraz, erabaki nuen ez parte hartzea. Askok sakrifikatu nintzen forman iristeko, gauza pila bat utzi behar izan nintuen alde batera, eta azkeneko hitza Euskadiko Federazioarena izan zen, eta bertan hautatzaileak erabaki zuen neskak ez eramatea. Mutilak eraman zituen, baina, beste behin, neskak izan ginen gaizki irten ginenak. Oztopo hori pasatu, eta Suitzan eta Bordelen izan nintzen Gipuzkoako Federazioarekin, eta arantza atera ahal izan nuen.

Bordelen, nazioarteko proba batean, hirugarren postua lortu nuen. Hor ikasi nuen momentu txarrak gainditzen ikasi behar dela, gero onak disfrutatu ahal izateko.

Kolpe horrek uzteko erabakian zeresana izan zuen?

Nik erabakia nahiko hartuta neukan. Baina, konturatzen



zara, zure esku dagoen guztia eman, eta kanpoko eragile askok ez dizutela uzten erakusten zuk egindako lan guztia, eta hori oso gogorra da. Ikasketak egiten aritu izan naizen bitartean horrelako oztupoak beti izan ditut, baina beti babestu izan naiz ikasketetan. Horretara bakarrik zaudenean, ordea, horrelako oztupoek kolpe handiagoa ematen dizute. Pentsatzen duzu: «Ni hemen, orduak sartzen, nire etorkizuna beste bide batetik eraman beharrean, eta benetan merezi du hainbeste sakrifikatzeak?».

Txirrindularitza profesionala utzi duzunetik zertan aldatu da zure bizimodua?

Erabat aldatu da, baina gero hasten naiz pentsatzen ez dela hainbesterako. Entrenatze hori eta sakrifikatze hori bizitzan beste era batera aplikatzen ikasi dut. Hilabete gorrak izan dira, lana eta ikasketak uztartuz, baina lortu dut, eta nire denbora librean kirola egiten jarraitzen dut. Orain beste era batera. Lehen indibidualki zen, edo entrenatzen ibiltzen nintzen jendearekin. Orain gogoia baldin badut mendira joateko, mendira joaten naiz. Eta korrika egitera joateko gogoia badut, horretara joaten naiz. Eta lehen paperak esaten zuena egin behar zen, bai edo bai, eta bukatu arte ez zinen etxera itzultzen.

Bizikleta ez duzu guztiz utzi.

Ez, bizikletan beti ariko naiz. Orain poliki nabil, ez lehen bezain azkar; beste era batera disfrutatuz. Orain kafe bat hartzen ere geratzen gara nonbait.

Jende dezente ikusten da bizikletarekin, ezta?

Konturatzen naiz, eta poz handia sentitzen dut neskak ikusten ditudanean. Lehen konturatzen nintzen neskak ibiltzen zirela, bere bikotekidearen ondoan-edo; ematen zuen beren bikotekideak bultzatuta zebiltzala bizikletan. Orain neska pila bat ikusten da errepidean, bakarrik, nesken taldeetan, edo mutilekin taldeak osatuz. Eta horrek poz handia ematen du.

Elikadurari dagokionez ere aldatuko zitzazun egoe-ra, ezta?

Orain ez dakit elikadurari ez ote diodan gehiago begiratzeko. Lehen jandako guztia erretzen nuen, eta orain dena itsatsi egiten da. Jarraitzen dugu begiratzeko, egunero-egunero, urtetan hartutako ohiturak dira; hori bai, beste maila batean.

Eta parranda kontuak?

Pentsatzen nuen bizikleta utzi eta parrandan hasiko nintzela. Baina asteburuetan lan egiteak ez dit uzten parrandaz gehiegi disfrutatzen. Dena den, etorriko dira horretarako garaiak ere.

Zer esango zenioke txirrindularitzan murgiltzeko asmoa duen haur bati?


Garaia dela denetarik probatzeko, denetarik disfrutatzeke. Eta iritsiko dela unea, esateko, «honetan aritu nahi dut», eta pentsatzeko merezi duela gauzak alde batera uztea, honetarako. Egia da gogorra dela, hori ez badut horrela esaten jendea engainatzen ari naiz; baina jasotzen dituzun pozek ez dute preziorik. Beraz, anima daitezela.

Eta nola ikusten duzu txirrindularitza, beste kirolekin alderatuta?

Txirrindularitza pixka bat baztertuago, batez ere futbolariekin alderatuz. Itzalpean gaude oraindik, baina ikusten dut jende askok jarraitzen duela, eta ez dakit gehiagora egingo duen, baina mantentzeko arazorik ez duela izango, seguru.

Etorkizunean loturarik izango duzu txirrindularitzarekin? Prestatzaile moduan, adibidez?

Gaur egun erizaintzarekin buru-belarri nabil. Baina, egia da, Gipuzkoako Federazioarekin erabat zorretan sentitzen naizela, eta beraiek proposatu zidaten ea eskola batzuetan saioen bat egingo ote nuen; baita belodromoan ere, bertako arauak-eta azalduz, eta ikasle neskak zein mutilak bizikletan proba egitera pixka bat bultzatuz. Eta orain horretan nabil: Gipuzkoako Federazioak emandako laguntza eta babes guztia nire denbora tarte txiki horretan bueltatzen saiatzen.



HAMALAU

URREZKO DOMINA

Ane Iriartek domina ugari eskuratu zituen bere txirrindulari ibilbidean; horietatik hamalau urre kolorekoak Espainiako txapelketetan, ia denak pistan. Europako zein Munduko txapelketetan ere parte hartzeko aukera izan zuen, belodromo barruko modalitatean.

I. García Landa

Ane Iriartek gehien gozatu duen modalitatea pista-koa izan da. Hamahiru urre lortu zituen, Espainiako hainbat txapelketetan. Errepideari dagokionez, 23 urte azpiko Espainiako Txapelketa batean, erlojupekoaren aurkako proban txapelduna izan zen. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan, berriz, lortutako dominen zerrenda askoz ugariagoa da.

Pistari dagokionez, Europako Txapelketetan ere parte hartu du Iriartek, eta postu onena puntuazioko proba batean lortu zuen, bosgarren izanez 23 urte azpiko mailan. Elite mailan, scratch proban lortutako zazpigarren postuarekin jo zuen goia. «Iazkoa urte borobila izan zen, Europako Txapelketan maila ona eman ondoren, Munduko Txapelketara joan nintzen», azaldu du Iriartek: «Munduko Txapelketan ez nuen hainbesteko zortea izan. Hemezor-

tzigarren egin nuen scratch proban, eta puntuazioan arazo bat izan genuen materialarekin, nahasketa bat izan zen garapenarekin, eta lasterketatik kanpo geratu nintzen. Pena handia izan zen, Munduko Txapelketa baitzen gorritz markatutako eguna nire egutegian, eta ez zen ondo atera».

Iazkoa izan zen mundu mailan parte hartu zuen urte bakarra. Europako txapelketetan jubencil mailatik hasi eta lehiaketa utzi bitarte parte hartu zuen billabonatarak, hau da, zazpi urtez: «Europako Txapelketan eta Munduko Txapelketetan puntan dabiltzan kirolariak berdinak izaten dira, baina munduko txapelketetarako jendea gehiago prestatzen da, eta abiadura igo egiten da. Kilometro orduko datuak segituan esaten du, askoz ere maila handiagoa dagoela».

Hamahiru urterekin hasi zen Oriako Txirrindulari Eskolan, infantil mailan. Kadete mailan Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukera izan zuen, Euskadiko Federazio-



arekin, eta lehenengo urtetik hasi zen dominak etxera ekartzen, eta azken urteraino urre kolorekoak izan ziren.

Taldeei dagokienez, Oriakon hasi zuen bidea, gero Tolosa CFn jarraitu zuen. Ondoren Oriakora itzuli zen, gero pare bat urtean Nafarroako Reino de Navarra taldean ibili zen, eta handik Kantabriako Merueloko klub batean beste urtebete pasatu zuen. Hortik saltoa egin zuen Bizkaia Durangora. Eskualdetik kanpoko taldeetan aritzeak «sakrifizio handia» suposatu zion. «Bestalde, egia da zortea izan dudala, beti inguruko laguntza izan baitut. Pribilegiatua sentitzen naiz alde horretatik».

Iraupenezko probetan

Pistako modalitatea bi zatitan bereizi daitekeela dio Iriartek. Proba batzuk iraupenezkoetan ondo moldatzen direnentzako izaten dira, eta hor probak luzeagoak dira. Besteak abiaduran ondo moldatzen direnentzako dira, eta proba horiek motzagoak dira. «Gorputzak ere ezberdinak izaten dira. Ni iraupenezkoetan lehiatzen nintzen, eta bertako proba ezberdinetan irabazi ditut Espainiako txapelketak», esan du. Esaterako, 23 urtez azpiko mailak irauten dituen lau urte horietan guztietan, scratch proban irabazi zuen domina. «Scratcha da pistan ulertzeko errazena den proba. Itzuli kopuru bat du, eta azkeneko itzulian helmugara lehena iristen denak irabazten du».

Lorpen horietako batzuk taldeka eskuratu ditu. Jubenila eta kadetea zenean parte hartzen zuen taldekako abia-

dura proban, eta bertan domina bat edo beste lortu zuen. Gero, helduago izatean, iraupenezko probetan gehiago zentratu zen, eta hor bai, taldekako probetan, jazarpenekoetan, azken urteetan irabazi zuten. Lasterketa horretan lau txirrindulari ateratzen dira, eta erreleboka itzuli kopuru bat eman behar da.

Iriartek dioenez, «erabat bateragarriak» dira errepidean eta pistan ibiltzen diren txirrindulariak: «Baina ikusten da pistan oso ondo dabilen txirrindularia, gero, errepidean, oso ondo ibiltzen dela; eta berdin hainbeste nabarmen-tzen ez denaren kasuan ere. Ez dakit motibazioarengatik edo zergatik dauden aldeak, txirrindulari batzuetatik besteetara».

Errepideko egutegi guztia erabiltzen zuen pistari begira. «Normalean, pistan ondo nenbilenean, errepidean ere ondo aritzen nintzen. Ez dut esango aldapetan espezialista nintzenik, baina mendateak pasatzen nituen. Gero, esprinterako beti ematen dizu pistak indar hori».

Gipuzkoan txirrindulariak «zortedunak» direla dio Iriartek. «Hemengo txirrindulari guztiek dute aukera bere eskolarekin Anoetako belodromora joateko, eta Gipuzkoako Federazioak uzten ditu bizikletak eta sarrera, hiru egunez doan, eta gero bertako lasterketetan parte hartzeko eta probatzeko aukera». Proba horien bitartez eta entrenamenduetan arituz, pistaren harra sartu zitzaion Iriarteri, eta gero Gipuzkoako zein Euskadiko federazioekin kanpora joaten hasteko aukera izan zuen, probetan lehiatzera.

«Baserrien bidez sartu zaigu toponimia familian, uda pasatzera baserrietara joaten ginelako»

XABIER ELOSEGI
IDAZLEA

Baionan bizi da, aspaldi, Xabier Elosegi (Tolosa, 1937), gaztetan Iparraldera ihes egin eta hainbat tokitan bizi eta gero. Peritu industrial ikasketak egin eta hainbat lanbidetan aritzeaz gain, hizkuntza, etxe zaharrak eta toponimia izan ditu zaletasun nagusi, bere aitak eta senide gehienek bezala.

Joxemi Saizar

Baditu argitaratutako hainbat liburu, azken biak, *Le Dauphin: 1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak*, *Othoi çato etchera eta Senpereko (eta Lapurdiko) euskara XVIII. mendean*. Bere lanaz, liburuez, bizitzaz eta gogoetez mintzatu da, bere etxean.

‘Senpereko (eta Lapurdiko) euskara XVIII. mendean’ kaleratu zenuen, iaz, Lapurdi 1609 elkartearen eskutik. Zein izan zen abiapuntua?

Nire bi lan horiek lotura zuzena dute Otoi çato etchera liburuarekin. Lamikiz, Padilla eta Videgainen eskutik ateratu zen, 2017an: Lamikiz bizkaitarrak, bere tesia prestatzen ari zela, 1757an euskaraz idatzitako gutun pila bat aurkitu zituen, Londresko artxibo batean. Sekulako altxorra, ordura arte horrelakorik ezagutzen ez zelako, eta inork espero ez zuelako, euskaraz XVIII. menderako hainbeste idatzi izatea. Saratik eta Lapurdiko beste herri batzuetatik –Azkai-

ne, Getari, Bidarte, Senpere, Ziburu, Donibane Lohizune, Hendaia– Louisburgeko gotorlekuan (Kanada) bizi ziren kolono euskaldunei idatzitako gutunak dira. Eskutitz horiek bere osotasunean agertu ziren, eta baita ekonomia atlantiarrari, orduko lapurtar euskaldun alfabetatuei eta linguistikari buruzko lanak ere. Liburu ederra da, baina badiu hainbat gauza zuzenak ez direnak, toponimian, adibidez.

Saran hainbat urtez bizi izan nintzen, eta hango etxeei buruzko liburua idatzi nuen. Otoi çato etchera liburuak zenbait datu ez ziren zuzenak, nire ustez; gisa berean, Lapurdiko jende xehea euskaraz alfabetatua zela aipatzen da –emakumeak barne– behin eta berrir, baina hori mito hutsa da. Orduan, nire zuzenketekin eta gogoetekin idatzi nuen *Le Dauphin: 1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak*, *Othoi çato etchera*, zenbait hilabeteren buruan; orain kaleratu du Euskaltzaindiak, Iker bilduman.

Zergatik atzerapena?



Euskaltzaindiak baditu bereak diren arauak eta bere egiteko modua, eta horrek eragin du, gehienbat, liburu honen atzerapena.

Eta Senpereko euskarari buruzko liburua, nola egin duzu?

Notarioen dokumentu ofizialetan harribitxi asko topatu nituen: inbentarioak, testamentuak, etxe partitzeak, adituen txostenak, etxeko obrak egiteko aurrekontuak, Getariako portuan egiteko obra handiaren aurrekontua... Euskaraz eginak. Mota guztietakoak daude. Batez ere Senperekoak dira, baina badira Ahetze, Bidarte, Azkaine, Getaria eta beste lekuetako batzuk, horregatik jarri dut Lapurdi hitza izenburuan. Pentsa zer izaten ahal zen horrelako dokumentu multzoa, Tolosaldean topatua izan balitz!

Euskal Herriko notario guzien agiriak, digitalizazioaren bitartez, denen esku dira interneten. Hegoaldean digitali-

«Nire ikasguneak familia, kartzela eta Iparraldean bizitzea izan dira»

zazio lan hori eginik balego, zoramenen izango litzateke lanerako!

Nola banatu duzu liburua?

Lehenik esan behar dut, notarioek beti frantsesez egiten zizutela agiriak, baina, han-hemenka, azaltzen dira euskarazko izkribuak, aktari nolabait itsatsiak

Martin Harismendy notarioa da oparoena. Bi zatitan banatu ditut haren agirietan topatu ditudan euskal testuak: orokorrak eta oihanei buruzkoak. Beste zazpi notarioen agirietan agertzen diren euskal testuak ere jaso ditut. Ez da linguistika lan bat, testu zaharren aurkezpen bat baizik ez da. Ez dut, beraz, ondoriorik atera, lan hori besteek egingo dutelakoan.

Zer moduzko harrera izan du lanak?

Orain arte ez dut ezer ikusi, linguistikaz arduratzen diren adituen aldetik. Ni peritu industrial naiz, ez naiz hizkuntzalari, baina, nire ustez, hemengo unibertsitateek behar-ko lukete, horrelako euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko dokumentu horiez zerbait esan. Zoritxarrez, gaur egun egiten diren ikerketa lanak, gehienetan, espainieraz eta ingelesez egiten dira. Gutxi dira euskaraz ikertzen dutenak, hala nola, Ikergaztekoak.

Liburu horietan agertzen dena euskararen historia da, eta oso gutxi egiten da alor horretan. Kasurik onenean aipamen soil bat ikus dezakegu, baina batere segidarik gabekoa.

Iruña-Veleiaren kasua hor dago. Usteltzen utzia izan da, eta ez da ezer egin gehiago ikertzeko. Aldiz, badira hizkuntzalari eta jakintsuen ekarpenak, baina «aditu» ofizialen mundutik baztertuak dira.

Formazioz hizkuntzalari ez izan arren, gustuko duzu gaia. Nola hasi zinen?

Hiru ikasgune izan ditut. Lehena etxean, familian, eta osaba Jesusen bidez [Aranzadiren sortzailea]. Bigarrena Carabancheleko kartzelaldian, sei hilabetez eibartarrez ikasi nuen nirekin batera zeudenekin. Hirugarrena hemen bizitzea izan da: lapurtera eta baxenabarrera ikasi, hemengo jendearekin integratzeko. Hemen bizitzeak asko lagundu dit, konturatzeko, espainierak hango euskara, eta frantsesak hemengoaren kutsatu duten; ikaragarria da, eta ez gara konturatzen.

Euskara batuari buruz esan behar da, batzuek ez bezala, gipuzkoarrek ez dutela ezer galdu, eta ez dutela indarririk egin behar izan batua ulertzeko. Ez da horrela gertatzen asko galdu dutenekin: bizkaitarrak, Iparraldeko euskal herri-tarrak... Horiek saiatu dira, halabeharrez.

Familian asko jorratu duzue toponimia.

Aita eta osaba zaleak ziren, eta seme gehienak aritu izan

gara horrelako lanetan, nahiz eta adinean aurrera joan, horretan ari beti. Umetan eta gaztetan Tolosa inguruko herri txikietako etxe batzuetara joaten ginen, uda pasatzera, familia osoa: Goiatz, Leaburu, Gaztelu, Berastegi, Etxarri-Aranatz... Zorte handia izan genuen horrekin, asko ikasi genuelako. Baserrien bidez sartu zitzaigun euskara eta toponimia zaletasuna. Mendizaletasuna ere garrantzi handikoa izan da.

Abertzaleasuna nola jaso zenuen?

Osaba Jesus beti ari zen largabistekin eta, behin, Beizama-koba batean izan ginen batean, Hernion ikurrina jarri zutelako esan zigun. 11 urte nituen eta zirrara eman zidan. Euskadi hitza zer zen ere ez nekien. Eskolan batzuk saltse-roagoak ziren, eta zerbait gehiago bazekiten.

Niretzat Oargi garrantzitsua izan zen, apaiz gazte oso jatorrak izan genituen: Jose Antonio Etxezarreta, Karlos Agirre, Joseba Ulazia... Han JOC (Juventud Obrera Cristiana) eta gisa horretako mugimenduak ezagutu nituen, eta ikusi-aztertu-ekin metodologia zer zen ikasi nuen. Jende asko mugitzen zen bertan: Jose Miguel Ceberio, Jose Manuel Ugarte, Jose Antonio Lizarribar, Jose Antonio Jauregi, Jose Luis Lopetegui, Ignacio Goigogana, Eugenio Izagirre... Hitzaldiak ere antolatzen genituen, nahiz eta gure artean orduan dena erdaraz egin. Korazonistetan eta sakramentinoetan bazen giro euskaldunagoa.

Zein izan zen hurrengo pausoa?

Euskaltzalea nintzela banekien, baina abertzale zer zen ez nekien hogeitertekin. Zerbait egin beharra zegoen, frankismoaren kontra, eta Euskal Herriaren aldeko erresistentzia. Ez genekien oso ondo non sartzen ginen. Gero etorri ziren Ekin eta ETA.

Ikasten eta lanean ari zinen.

Bai, nire etxean denok egin dugu lana udan, ikasten ari ginen bitartean. Eta atzerriko hizkuntzak ikastera ere bidali gintuen familiak, ezagunen etxeetara. Peritu ikasketak egin nituen Donostian eta, Ramondin, Ibarrako kapsula fabrikari, urte pare batez egin nuen lan. Atxiloketaren ondoren berriro hartu ninduten, eta zuzendari izatea ere eskaini zidaten, baina alde egin behar izan nuen.

Nola izan zen?

Oso erraz, amarekin, anaia batekin eta Elena Onandia andregaiarekin, gaur egun nire emaztea denarekin, Dantxari-neko benta batetik. Berehala lanean ari nintzen Hazparneko kolegioan; Piarres Xarriton zen zuzendaria eta Txillardegi eta Jean Louis Davant ziren irakasleetako batzuk. Davant-ekin asko ikasi nuen. Lanetik bizi izan naiz beti.

Itzultzeko asmorik ba al zenuen?

Batzuk uste zuten laster itzuliko ginela, baina ezin zen jakin zer gertatuko zen. Orduan ETA ez zen gauza asko egiteko gai, gaitasun militarrik ez zuen. Lehen bi biltzarretan egon nintzen, Beloken eta Capbretonen, oso jende gutxi ginen. Franco hil eta, amnistia eman zutenean, itzultzeko aukera izan nuen. 14 urte kanpoan egon ondoren, Tolosara itzuli nintzen, 1976ko azkenaldian. Bederatzi urtez Bordele ondoan aritu nintzen lanean, Frantziako administrazioak ohildurik. Ordurako nire ohiltze-agindua bukatuta, Baionan eskaini zidaten lana, eta bertan gelditzea erabaki genuen. Ordurako bi seme bagenituen, eta ez nuen zalan-



tzarik. Nire herrian nengoen, inguru euskaldunean, eta oso gustura. 27 urtez aritu naiz bertako lantegi horretan, erretiroa hartu arte.

Semeek zure bidea jarraitu al dute?

Eñaut Xalbador kolegioko zuzendaria da eta, Laskorain ikastolarekin trukea dutenetik, Tolosarako zaletasuna berpiztu zaio. Iker Laborantzak Ganbaran ari da lanean, eta bere semea Txomin bertsolari izan zen, eta orain ere badu sena horretarako. Orain Txomin aita izan da, birramona-birraitona egin gaituzte. Bigarren eta hirugarren belaunaldiak euskaldunak dira; laugarrena, ikusi egin behar.

Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?

Erabiltzen ez bada, oso gaizki, nahiz eta euskaldun asko izan. Erortzen ari da erabilera. Kanboko kolegioan haur guztiak frantsesez ari dira irteeran. Semeen haurrak oso euskaltzaleak dira, militanteak, eta haien lagunekin euskaraz egitea lortzen dute, baina, ezin da ukatu, euskaldun gisa jokatzeko dutenak ghetto batzuk direla, gutxiengoak. Erraz jotzen da, hemen, frantsesaren aldera. Alde horretatik ez naiz optimista.

Eta Euskal Herria aldatzeko aukera ikusten duzu?

Hego Euskal Herrian ondo bizi den jendea bada eta horiek ez dute ikusi nahi ere, besterik badela! Planeta bakarra



BILBO HIRIA IRRATIA

23

daukagu eta izorratzen ari gara, ez dago aski militantzia-rik. Hegoaldean abertzaletasuna deskafeinatzen ari da, barne ideologiaz hustutzen, hainbeste kritikatu dituguen abertzaletasuna bezala. Euskal Herrian, une batean zegoen indarrarekin, posible zen zerbait egitea, baina orain... Desideologizazio hori alderdi guztietan gertatzen ari da.

Europako hauteskundeetarako, abertzaleentzat aukera bakarra Korsikako eta Britainiako abertzaleekin eta berdeekin egindako zerrenda bozkatzeta izan da. Baina ezin ahaztu Europa kapitalista hutsa dela.

Jaka horien mugimenduak indar handia hartu du. Nola ikusten duzu?

Kontraesan izugarriak ditu. Kexatu ziren gasolinaren prezioa igo zelako eta abiadura mugatu zutelako. Hasieran antiekologistak ziren, baina, pixkana, ekologistak ari dira bilakatzen. Jipoituak izan dira, Katalunian bezala, baina argi dago zerbait lortzen ari direla. CGT sindikatu indartsua konturatu da, hilabete batzuetan eurek urtetan lortu dutena baino gehiago lortu dutela. Orain haiengana hurbiltzen ari dira, teorian behintzat.

Alderdi politikoa bilaka daiteke?

Ez dakit ona izango litzakeen.

«Erabiltzen ez bada, oso gaizki ikusten dut euskararen etorkizuna, nahiz eta euskaldun asko izan»



Itsasontzi baten, Euskal Herritik kanpora...

Nora goaz oraingoan?

Kruzero bat egiteko gogoia daukat, itsasoa zeharkatuz herrialde ezberdinak ezagutzeko aukera ematen du eta.

Bai, baina herriak ikusi edo ezagutzeko aukera?

Galdera ona, portuaren kokapenak eta herriaren tamainak hemen zerikusi haundia du. Hau da, Mediterraneoa zeharkatzen duten itsasontziak Erroma eta Florentzia ikusteko aukera ematen dizute; horietan portua urrun dago, eta monumentuak eta leku esanguratsuenak ikusteko denbora ematen du. Adriatikotik aldiz, Santorini, Mikonos eta bestelako uharte txikietan gelditzen da, eta horiek ezagutzeko denbora daukazu; txikiagoak dira, eta itsasontzia bertan dago. Fiordoak ezagutzeko ere era eroso da, eta itsasotik fiordoak ikustea sekulakoka da.

Benetan herrialde politak!

Bai, ibilbideak politak izaten dira. Gainera, aldatzen saiatzen dira eta, orain, Korsika nahiz Sardinia ezagutzeko aukera ere izango dugu.

Primeran. Orain, kontaiezazkidazu itsasontziaren ezaugarriak.

Itsasontziak hotelak bezelakoak dira. Itsasontziaren barruan ez duzu ezereen faltarik izango, denetarik dago (igerilekua, kasinoa, jatetxeak, medikua...). Ikuskizunak, adibidez, oso onak izaten dira, eta gauza asko daude egiteko; aspertzea ezinezkoa da.

Nola, denerako denbora ematen du?

Bai, kruzero batean atsedean hartzea zaila da. Gauero, itsasontzi-gelan egunero ko moduko bat uzten dute, eta bertan hurrengo egunean egin dezakezun guztia azaltzen dute: txangoetako ordutegiak, zein jarduera dauden, zein ordutan sartu eta ateratzen den itsasontzia edo hurrengo eguneko gaia (inauteriak neguan, gau zuria, gala afaria,...).

Familiarekin joateko, zer iruditzen?

Aukera ona da, itsasontzian oso eroso sentitzen dira familiak. Umeentzat hainbat eremu daude, eta familiei zuzendutako jarduerak ere bai, primeran pasatzen dute! Eta itsasontzi batean joatea beti gehigarri bat da etxeko txikien-

tzat. Gainera, ez pentsa familiak bakarrik joaten direnik, lagun taldeak ere joaten dira. Diskoteka, kirola egiteko eremu ezberdinak daude... Eta dena barne aukera ere har dezakegu

Zein itsasontzi gomendatuko zenidake?

Bakoitzak bere xarma du. Gu kruzero zaleak gara, ezberdinak egin ditugu eta guztietan oso ondo pasa dugu. Hizkuntza aldatzen da, itsasontziaren tamaina... Pertsona bakoitzari hobekien egoitzen zaion kruzeroa eskaintzen saiatzen gara.



**MYRIAM GURRUTXAGA ETA
ENARA ETXEBERRIA**



Euskal Eskola Publikoaren festak arrakasta handia izan du

Errenteriako festa egun arrakastatsuaren ondotik,
2020ko Euskal Eskola Publikoaren jaia Bastidak hartuko du.

Euskal Eskola Publikoaren 28. festa ospatu genuen joan den igandean, Errenterian, *Makina bat taupada* goiburuarekin. Espero zen bezala, milaka lagun bildu ziren festa gunera, herri eskola euskalduna, inklusiboa, aldarrikatzailea, berritzailea, parte hartzailea eta beste ezaugarri asko dituen Euskal Eskola Publikoa omentzeko.

Gogoetarako eguna izateaz harago, igandekoa festa eguna izan zen, eta handiek eta txikiek gozatu ederra hartu zuten hango puzgarriekin, pailazoekin, kontzertuekin, txotxongiloekin, Dj-ekin, tailerrekin eta beste entretenimenduekin. Errenteriako herria Euskal Eskola publikoko gurasoz, ikaslez eta irakaslez bete zen, urteroko zita honetara hutsik egin gabe elkartu baitziren denak; hezkuntza-sare bat, gure seme-alaben heziketan zer esan handia duena, kalera ateratzeko.

Datorren urtean Bastidaren txanda izango da; Koldokide IGERen eskutik lekukoa hartu zuen eta, ez dugu zalantzarik egi-ten, aurtengo giro aparta errepikatuko dela datorren urtean ere, Arabako herrian.

Agenda



IKASTURTEA AMAITU AURREKO GOZOKIA, IBARRAKO PLAZA INGURUTIK

Ohi baino azkarrago heldu dira, aurtan, Ibarako Gazte Festak, eta askok pozez ospatuko dute hori bera. Horrela, gaur hasi eta igandera bitarte, Ibarako plaza eta gaztetxe inguruak hartu ditu ibartarrek prestaturiko egitarauak, ikasturte amaiera festaz girotzeko. Besteak beste, Alurr dantza taldeak parte hartuko du jaietan; irudian, izako gazte festetako emanaldiaren une bat. **ATARIA**

26

OSTIRALA EKAINAK 7

ALEGIA

22:00. Sutarri dantza taldearen ikasturte amaierako emanaldia, Elorri pilotalekuan.

IBARRA

19:00. Ibarako Koroaren kontzertua, kultur etxean.

IBARRAKO GAZTE FESTAK

18:00. Txupinazoa. Jarraian, sagardo dastatzea Bonberenea txarangarekin.

21:00. Afaria plazan.

22:30. Alurren emanaldia.

23:30. Kontzertuak plazan: The Bobby's, Galtzagorriak eta Boot Boys. Ondoren. Ekitaldi politikoa eta kontzertuak gaztetxean: Eztena, Estarlus eta DJ Elepunto.

TOLOSA

17:30. Energiaren Superheroien I. Topaketa, Zumardi Handian, ingurumenaren egunaren harira. Ginkana eta jolasak, Intujaiaren eskutik. 18:30, Superheroien merendola eta argazkia. Eguraldi txarra eginez gero, bertan behera. **18:00.** Gimnastika erritmikoko ikasleen emanaldia, Usabal kiroldegian.

LARUNBATA EKAINAK 8

IBARRA

16:00. Ibarako V. Mus Txapelketa Herrikoia, Txumitxa tabernan.

IZASKUNGO FESTAK

18:00. Izaskungo jaiak. Zezen txikiak eta poniak Lopene ganadutegiaren eskutik.

Ondoren. Pintxo eta sagardo dastatzea (Altuna, Rufino, Setien, Alberro, Rezola eta Intsalus sagardotegiak).

IBARRAKO GAZTE FESTAK

11:00. Jolasak gaztezuoren eskutik.

17:00. Alurren emanaldia. Ondoren. Txokolate jatea eta tortilka Sendi Ekintzaren eskutik.

18:30. Burrunba elektro txaranga.

21:00. Barrikotea.

22:30. Kontzertuak plazan: Rodeo, Streetwise, Ziakkus. Gaztetxean: DJ Jotatxo.

TOLOSA

11:30. Bisita gidatu antzeztuak, familientzako, Topic zentroan. 11:30ean euskaraz, eta 12:30ean gaztelaniaz; izena eman behar da aurrez, Topic zentroko komunikazio kanalen bidez.

16:00. V. Made in Tolosa azoka, Box.an.

Tolosaldeko artista eta artisau guztiak azokan parte hartzera gonbidatu dituzte, beren lana ezagutzera emateko.

20:30. Tic Tac antzerki taldearen ikasturte amaierako antzerkia, Leidor aretoan: *Txuri*.

IGANDEA EKAINAK 9

ADUNA

09:30. Biodibertsitatea eta fauna ezagutzeko mendi irteera, ingurumenaren nazioarteko egunaren harira, Adunako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkartek antolatuta. Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da.

12:00. Kultur Zirikaren barruan, klarinete emanaldia izango da elizako zimitorioan, Lautan Quartet taldearen eskutik: Claudia Alduncin, Arantxa Idigoras, Josu Otxandorena eta Jose Luis Perez.

IBARRA

IZASKUNGO FESTAK

12:00. Aizkolariaren saioa: Xabier Orbegozo Arria V eta Ruben Saralegi.

14:30. Herri bazkaria.

Ondoren. Andoni Egaña eta Iker Zubeldia bertsolarien emanaldia.

19:00. Puro relajo taldearen emanaldia.

IBARRAKO GAZTE FESTAK

18:00. Gaztetxeko argazki zaharren erakusketa eta pintxo-potea. Jarraian. Kontzertu akustikoa gaztetxean.

TOLOSA

18:30. Kontzertua 3 tabernan: Trio do Portu. Brasildar musika zuzenean.

ASTELEHENA EKAINAK 10

IBARRA

IZASKUNGO FESTAK

10:00. Diana.

11:00. Meza Nagusia.

12:00. Hamaiketako.

13:00. Bertso saioa: Sebastian Lizaso eta Anjelmari Peñagarikano.

17:30. Alurr dantza taldearen emanaldia. Segidan. Haurrentzako gozokiak.

18:30. Bertso saioa: Sebastian Lizaso eta Anjelmari Peñagarikano.

19:30. Erromeria Loatzo musika eskolako soinu joleen eskutik eta jaien amaiera.

TOLOSA

18:00. Osasuna kalean kanpaina, Zerkausian, Asuncion klinikaren eskutik: *Artrosia: kausak, ondorioak eta tratamendua*, Arturo Diaz eta Elias Javier klinikako traumatologoen eskutik.

ERAKUSKETAK

ANDONI ROBLOSEN

ERAKUSKETA

Zizurkil. Ekainaren 16ra bitarte ikusgai, Atxulondon.

SPEELTHEATER HOLLAND

Tolosa. Txotxongilo konpainiaren erakusketa ikusgai, Topic zentroan, irailaren 15era bitarte.

KOSTAKO BIDETIK

Tolosa. Aranburu jauregian azken egunak dira, Zigor Garciaren zeramika erakusketa ikusteko. Bihar izango da azken eguna, ekainaren 8an.

JORGE MALCORRA

Tolosa. Sortzaile tolosarraren lanak ikusgai dira Aranburu jauregian, sentimentuak erdigunean jarriz sortutakoak. Bihar bitarte izango dira ikusgai.

ALBERTO LETAMENDI

Tolosa. 3 tabernan erakusketa jarriko du artistak, ekaina osoan barrena ikusgai egon dadin. *Loturak vs. lokarriak* izenburua jarri dio lanen bildumari, eta gaur bertan izango da erakusketaren inaugurazioa, 19:00etatik aurrera.

ZINEMA

'EL GORDO Y EL FLACO'

Larunbata (19:30/22:30)

Leidor, Tolosa.




'EL BAILARÍN'

Igandea (19:30/22:00)

Astelehena (20:30)

Leidor, Tolosa.



kon2natu
progresiboak
+
eguzkitako progresiboak

229€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com





IXIAR ALTUNA

*Ikasturte bukaeran
begirada udan jarriz
asko gaude mendi edo
hondartzarako egarriz,
nahiz etorkizuna josi
egindakoaren hariz...
Ikasleok azterketaz
gabiltza kurtsoa itxiz,
Liburu, apunte, esaldi,
eskema, artikulua, hitz...
Nere sentimendu, uste,
pentsaera ta iritziz...
Hobe apuntez harago
bizitza aztertuko balitz.*



Doinua

ET Aren su etenetik

Rapatata-rapatata

Hemendik bi astera gure herriko festak hasiko dira, inauterien baimenez. Kuadrilla eguna edo eskopetarien alardea barrutik bizi duenak ondo daki-eta, zer den benetako festa. Lehenengoan, mi-

Zer inportako zaigu ba, lagunekin batera bere herriko festak disfrutatu nahi dituen arra ala emea den. Nik ez dut ezertxo ere aldatuko, nahiz eta gustura egingo nukeen, baina gera dadila lerrootan idatzita, behintzat, hausnarketarako. Hauteskundeak ere pasatu berri dira; kanpaina bukatu, promesak egiteari utzi eta politika egiteko garaia iritsi. Dagokionarentzat.

laka lagun, ehunka kamiseta eta beste horrenbeste izenen izenean, bagarela ospatzen. Bigarrenean, ez dakit noiz, ez dakit zein guda izan zela eta, hori aitzakia hartuta, egun guztiko kalejira, ondorengo gaupasari bidea zabaltzen diona. Izan ere, eta barkatuko dit Juantxo Glaukomak, tradizio zaharrak berri eta festaren alde jartzearen oso aldekoa naiz ni; ez al da ba inauteria, eskopetariz mozorrotzea ere?

Baina zentratu nadin. Aurten ere, ekainaren 24an, jantziko ditut galtza zuriak eta nire txalekoa, hartuko dut kaja, eta aterako naiz kalera. Ibiliko gara gora eta behera, beteko ditugu kaleak kez eta bolbora usainez, eta eseriko gara trago bat hartzera (hauxe da eta, oinarrian, garrantzitsuena). Begiratuko dut ingurura, eta hor egongo dira beti bezala Igor, Jon, Amaia, Mi-
ren, Iker, Asier, beste Jon, Carla, Alazne, Alain, Maialen, Maddi, Leire, Aitor eta beste guztiak ere. Normala den moduan. Eta jarraituko dugu kalean gora

eta behera, eta batzuek txalo joko digute, eta beste batzuek argazkiak atera, eta beste batzuk ez dira pasatu garenik ohartu ere egingo. Baina ez da ezertxo ere gertatuko.

Zentra gaitezen denok, mesedez, hau oraindik ere ez baita posible gure Euskal Herri maiteko bazter guztietan. Hain gauza normala iruditzen zaiguna, hain gauza normala behar lukeena, oraindik ere konfronta-

ziorako eta liskarrerako arrazoi beste-rik ez da-eta, festaren arrazoiak ahaztuta. Zer inportako zaigu ba, lagunekin batera bere herriko festak disfrutatu nahi dituen arra ala emea den. Nik ez dut ezertxo ere aldatuko, nahiz eta gustura egingo nukeen, baina gera dadila lerrootan idatzita, behintzat, hausnarketarako. Hauteskundeak ere pasatu berri dira; kanpaina bukatu, promesak egiteari utzi eta politika egiteko garaia iritsi. Dagokionarentzat. *Rapatata-rapatata-rapata-rapatata-rapatata.* Entseatzera noa.



**JULEN TELLERIA
LOPETEGUI
HIZTUNA**

KOMIKIA JOSEBA ANTJUSTEGIETXARTE



Hasierak

Denok sentitzen dugu nostalgia bizitzaren momentu batean edo bestean. Medikusuitzarrak izan ziren «nostalgia» izendapena erabiltzen lehenak, XVII. mendean, eta soldaduek etxemina izatean zuten sentipena deskribatzeko erabiltzen zuten; soldaduek etxearen falta sumatzen zuten, baina ez itzultzeko irrikaz, etsipenez baino, hura betiko atzean utzi izan balute bezala. Zabalkuntzaz, gaur egun nostalgia deitzen diogu maite dugun zerbait urruti sentitzeak ematen digun tristurari.

Barazkiak bezala, sasoi jakin batzuetan topa dezakegu nostalgia freskoen, eta horietako bat dira agurrak. Etxe-aldaketetan, ikasturtea amaitzean, udalekuen eta bidaien amaieran, praktikak amaitzean, lanpostua uztean, erretiroa hartzean ... Nostalgia daitorkigu ate joka. Ai zein gustura egon naizen, ai zein azkar pasatu den, gezurra dirudi, eta ai, ez dut berehalakoan ahaztuko ba, eta ai, eta ai... Agur erri-tualak egiten ditugu, solemnitatea behar duelako kontuak, bestela, badirudi ez dugula gozatu iraun duen bitar-

tean; eta gozatu dugu, ezta? Tristura sentitzera behartuta gaudе, besarkadak, muxuak, lore-sorta bat akaso, tortilla pintxoak, eta, nola ez, taldeko argazkia ezin falta dituen zeremonia batean. Protokolozko hitzak, hemen ez da ezer bukatzen, elkar ikusten jarraituko dugu, urtean behin bazkaria *minimo*, idatziko dizut kafetxo batera-ko eta beste hainbeste topiko.

Agur esatea bizilegea da, kaixo esatea bezainbat. Amaitzen ari den heinean ari zaigu dena hasten ere, nahiz gauza batzuei ofizialki agur esan eta besteei ez. Oharkabeen hozten zaizkigu laguntasunak, hiltzen zaizkigu gertukoak, edo gure zaletasunen zale izateari uzten diogu. Eta,

amaiera horietan, ez dugu tronpeta, danbor-hots, eta ereserikirik izaten.

Aldian-aldian nostalgia polita da, dosi neurtuetan betiere; aditu batzuen ustetan bizitzari zentzua bilatzeko modua ere bada. Baina ez zaitzala engaina. Nostalgiaz elikatzen denak beti usteko du hobeto bizi izan zela lehen, eta ez dela behin ere hain zoriontsu izatera ailegatuko. Eta, sen-

titzen dut zapuztea, baina nostalgia-ren garra pizten digutenak ez dira oroitzapen errealak, denboraren poderioz guk hautatutako kolore eta, batez ere, distiraz atondutako margolanak baizik.

Bizitzako zeinahi faseren bukaeran baldin bazaude, ez dizut nostalgiarik opa. Batzuetan gauzak ixtea tokatzen baita, gero berriz hasteko. Eta ederra da gauzak hastea, irailean arkatx zorroztu berriek duten usaina bezain ederra.



AINHOA MENDILUZE
KALEKANTOITIK
107.6 FM

Aldian-aldian nostalgia polita da, dosi neurtuetan betiere; aditu batzuen ustetan bizitzari zentzua bilatzeko modua ere bada. Baina ez zaitzala engaina. Nostalgiaz elikatzen denak beti usteko du hobeto bizi izan zela lehen, eta ez dela behin ere hain zoriontsu izatera ailegatuko

EGURALDIA



GAUR

Giro nahasiagoa izango dugu. Ostegunetik ostiralerako gauean sartuko den fronte baten hodeitza izango dugu egunsentian, eta tantaxkaren bat edo beste izango da. Hala ere, goizean bertan atertu eta ostarte batzuk irekiko



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

dira. Iluntzera arte, ordea, zaparraren bat edo beste; ezer gutxi izango da. Gauean atertu eta ostarte zabalak. Termometroak koska polita behera egin, eta 17-19 graduetan joko du goia.

BIHAR

Giro nahiko lasaia. Egunaren gehienan zeruan ostarteak nagusituko dira, eta eguzkiaz gozatu ahal izango dugu, nahiz eta, egun amaieran, hodeiak nagusituko diren, eta eguna amaitzerako euri pixka bat ere bueltan izango dugun. Haizeak ekialdetik joko du arratsaldeko lehen orduak bitarte, eta, ondoren, iparraldetik finkatuko da. Termometroak koska polita egingo du gora eta, eguneko erdiko orduetan, 22-24 gradu bitartean joko du goia.

ETZI

Giro nahasia berriz ere. Egunsentian hodeiak izango dira nagusi, eta euri zaparradaxka batzuk izango ditugu. Goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte giro lasaia. Arratsaldeko lehen ordutik aurrera, ordea, hodeiak nagusitu eta giroa nahastu. Zaparrada batzuk eta tarteka ekaitzak ere joko du, euri mardulagoa utziz. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta termometroa zertxobait jaitsiko da: maximoak, eguneko erdiko orduetan, 20-22 graduetan joko du goia.

OSTIRALA
07



IGANDEA
09



LARUNBATA
08



ASTELEHENA
10

IRAGARKI
LABURRAK

LANESKAINTZAK

Zerbitzaria. Ikatza taberna lanaldi osoan lan egiteko zerbitzari bila dabil. Interesatuak, bidali curriculumak ikatzataberna2003@gmail.com helbidera edo deitu 625 70 48 85 zenbakira

Komertziala. Landanet enpresak komertzialak behar ditu. Baldintza ezin hobeak: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilerio eta formazioa enpresaren kontu. Bidali curriculumak info@landanet.net helbidera, edo deitu 943 3186 06.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK

EKAINAK 7, OSTIRALA
TOLOSA

Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aramburu. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 0128.

EKAINAK 8, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amartz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 5118.

EKAINAK 9, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 6013.

EKAINAK 10, ASTELEHENA
IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. Telefonoa: 943 67 3274.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • L. Azpiroz Galartza.
Amaratz auzoa, 9.
Tel.: 943 67 5118.

ATARIA
IRRATIA

OSTIRALA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eskutik eguraldia, solasaldi politikoa Garbiñe Biurrun eta Jaan Inazio Hartsuagarekin. Igor Agirrerekin Galtzaundiren Hitzez Hitz eta Tolomendiren atala.

11:00. Hamaiketako Tolosako berriak.

16:00. Zebrabidea magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Mingaina Txulora. Erotikari buruzko saioa, Jon Imanol Etxaberekin.

LARUNBATA

10:00. Trikitia.

12:00. Hauspo artean. Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin, trikitiari buruzko saioa.

14:00. (H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa Imanol Artola Felix-ekin.

16:00. Entzuteko jaiok. Musika saioa.

17:00. Kokondo. Musika saioa Oskar Tenarekin.

18:00. Entzuteko jaiok. Musika saioa.

IGANDEA

10:00. Asteak utzitako onena.

16:00. Entzuteko jaiok. Musika saioa.

18:00. Entzuteko jaiok. Musika saioa.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza magazina. Iker Ibarluzearen eguraldi ragarpene, Agurtzane Belauntzaraneekin bidaia eta Iñaki Zubeldia kale kantoitik.

11:00. Hamaiketako Alegialdeko berriak.

16:00. Zebrabidea magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Hauspo artean. Trikiti saioa.

107.6 fm

www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde

12:30. 1,2,3 Hemen da Miru

17:30. Gaurkoan Tolosalde

21:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Izerditan

22:30. 31. Antzerki Astea Gerkia Lumon

23:30. Gaurkoan Tolosalde

**Hemen zure
iragarkia joan
daiteke**

publi@ataria.eus

661 678 818

Tolosa Toldoak

www.toldostolosa.com

Telefona: 619 37 70 36



IBARRAN EROSTEAK SARIA DAUKA

**Kanpainan atxikitutako dendetan
gastatzeko 100€ko hamar sari**



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM





ANOETA - Iturtxulo 1

3 logelako etxebizitzak
210.000€ tik hasita

Kale Berria 46, behea
20150 Villabona

607 445 484
943 69 02 97

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com